

## NATURKLIMAREN JARDUKETA-PLANA – 2025. URTEA

2025ko ekitaldiko jarduketa-planerako, Fundazioaren 2023-2026 Plan Estrategikoak –2023-06-22an egindako Fundazioaren patronatuan onetsiak– ezarritako 4 ildo estrategikoetan eta 15 helburu estrategikoetan oinarrituko gara ere.



### 1. ILDO ESTRATEGIKOA: KLIMA-ALDAKETARI BURUZ ESKURA DAGOEN INFORMAZIOA SENDOTZEA, ADMINISTRAZIOAREN ERABAKIAK HOBETZEKO

#### KLIMA-ALDAKETAREN BEHATOKIA

- GFari klima-aldaketari buruzko informazio eguneratua ematea: Arintzearen eta egokitzearen arloetan ezarritako adierazleen koadroaren analisia, datuak aztertzea eta interpretatzea.
- Txostenak egitea klima-aldaketak Gipuzkoan dituen ondorioen jarraipena eta Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategiaren (GKAABE) inplementazioaren jarraipena egiteko. Jarduketa hauen gainean oinarritua:
  - Gipuzkoako klima-aldaketaren gaineko inpaktuari eta kalteberatasunari buruzko urteko VI. txostena egitea (zehaztu gabe).
  - Kostaldeko itsasertzeko Behatokiaren kasuan kasuko txostena egitea klima-aldaketaren inpaktuari, kalteberatasunari eta egokitzapenari buruz.
  - Txosten monografikoak egitea “FOCUS” adierazle eta gai garrantzitsu eta interesgarriei buruz, klima-aldaketak Gipuzkoan duen inpaktua aztertzeko orduan.
  - Gipuzkoako BEG isurien inbentarioari buruzko urteko txostena egitea.

- e. Klima-aldaketak Gipuzkoako (Euskadi) espezie adierazleetan dituen efektuen analisiaren, kontrolaren eta prospekzioaren jarraipena egitea LIFE Urban Klima proiektuaren esparruan.

## **2. ILDO ESTRATEGIKOA: GIPUZKOAKO ENPRESA-SARETIK EKONOMIA HIPOKARBONIKO ETA BERDERANZKO TRANTSIZIOA BULTZATZEA ETA BIZKORTZEA**

### GIPUZKOAKO BORONDATEZKO KARBONO-FUNTSA:

1. Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtsaren lana kudeatzea: karbono-kontentsazioaren erregistro-txostenak jasotzeko, berrikusteko eta lantzeko administrazio-lanetan oinarritzen da.
2. Gipuzkoako Borondatezko Karbono Funtza sustatzea isuriak kontentsatzeko lurraldeko erreferentziarako mekanismo gisa. Oinarri hauek ditu:
  - a. Dohaintzak erakartzeko ekintzak: enpresa-harremanak, enpresa-erakundeei banaka nahiz modu asoziatiboan egindako ekitaldiak eta aurkezpenak, bai eta BKFaren sustapen-jarduerak ere.
  - b. Proiektu-zorroa toki-erakundeentzako gauzako laguntzen deialdi(ar)en bidez, azpiegitura berdea eta/edo karbono-hustulekuak hobetzeko proiektuak bultzatzeko.
3. BEG isuriak kontentsatzeko obrak eta proiektuak exekutatzeko, TEZNrekin koordinatuta: udal-laguntzen deialdiarekin lotutako proiektuak hautatzean eta bildutako funtsetan oinarrituta exekutatzeko oinarritzen da.
4. BKFarekin leialtzeko ekintzak egitea. BKFari ekarpena egiten dioten enpresei aitortza egitean datza, bai eta funtsaren onurak sustatzean eta funtsaren jarduerari buruzko informazio zuzena eta jarraipena erakunde ekarpen-egileei ematean ere.

### CIRCULAR RECYCLING HUB

1. Ekonomia zirkularra, deskarbonizazioa eta jasagarritasuna sustatzea Gipuzkoako errepresentzako lehiakortasun-aukera gisa. Besteak beste, jarduketan hauen oinarrituta:
  - a. ZIRKULAR BAT EKOSISTEMAren garapena eta kudeaketa: baterien ekosistema zirkularren 2025ko ekintzen hedapena estrategia global gisa, lurraldean balio-kate osoan baterien industria zirkularra sortzeko beharrezkoak diren azpiegiturak eta jarduera teknologikoak barnean hartzen dituen, lurraldeko funtsezko eragile lokalekin (enpresak, zentro teknologikoak eta ezagutza-eragileak) eta Euskadiko nahiz Estatuko beste eragile batzuekin lankidetzan.

- b. Naturklimak enpresa-sektorearekin eta ekosistema ekintzailearekin duen lotura eta aliantzen sorrera indartzea. Besteak beste, ekintza hauek garatuko dira:
    - i. Ekintzak garatzea eta kudeatzea, CIDETECekin sinatutako lankidetzahitzarmenaren (2024) esparruan, Gipuzkoan ekonomia-jarduera sortzeko baterien balio-kateko birziklatzearen eta konponbide zirkularren inguruan, ezagutza zientifikoa, teknikoa eta kudeaketa-arlokoa areagotzeko elkarlanean aritzeko interesa duten alderdi gisa, Gipuzkoan bateriak birziklatzeko eta berrerabiltzeko balio-kate bat sendotzeko.
    - ii. ADEGIko Ekintzaileen Foroarekin 2022an sinatutako lankidetzahitzarmenaren esparruan ekintzak garatzea eta kudeatzea, indarrak bateratzeko eta jasagarritasun-bokazioa duten enpresari berriei laguntza, babesa, prestakuntza eta mentorizazioa emateko enpresak martxan jartzeko fase desberdinetan. Hau da, haien proiektuak sortzeko, eratzeko, abiarazteko eta sendotzeko lanetan.
    - iii. Lurraldeko hotel-sektorean jasagarritasuna sustatzeko eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko ekintzak sustatzeko ADEGIko Hotelen Elkartearikiko lankidetzahitzarmenaren (2023) esparruan ekintzak garatzea eta kudeatzea.
    - iv. Lankidetzahitzarmena ASCONGIrekin (2023) lurraldearen eraikuntzaren sektorean jasagarritasuna eta klima-aldaketaren aurka borrokatzeko ekintzak sustatzeko.
  - c. Ekonomia Zirkularren esparruan European erreferentziazko erakundea den Esloveniako 'Circular Change'rekin hitzarmena edo akordioa garatzea lankidetzan aritzeko eta bi lurraldeen arteko sinergiak identifikatzeko, Gipuzkoako enpresek negozio-aukera berriak aprobeitatu ditzaten eta lehiakortasuna hobetzeko aukera izan dezaten, ekintza zirkularrak garatuz.
  - d. Gipuzkoako ETEetan Ekonomia Zirkularren egoerari buruzko azterketa hedatzea, 2023an Gipuzkoako Merkataritza Ganberarekin lankidetzan garatua.
2. Gipuzkoako enpresa-sektorean dauden Ekonomia Zirkularren ekimenak indartzea eta sendotzea:
    - a. GK Recycling klusterra dinamizatzea eta klusterreko bazkideei laguntzea, Naturklimaren estrategian planteatutako ekonomia zirkularreko berrikuntza eta ekintzailtza bultzatzeko eta bizkortzeko ekintzekin bat. Alde horretatik, arlo horretako ekintza garrantzitsuenetako bat Recycling TOP programaren jarraipena izango da, klusterraren barruan enpresen arteko lankidetzak sustatzeko.

- b. Etengabeko zaintza teknologikoa eta informazio estrategikoaren zabalkundea ekonomia zirkularrarekin lotutako jarduera duten enpresentzat: batez ere GK Recycling-en hileko buletina, 'Dendatu'ren hileko buletina (Gipuzkoako saltokientzat), mailing puntualak eta enpresekin egindako bilerak baliatuta.
  - c. Gipuzkoako industrian Ekonomia Zirkularraren eta GJHen autodiagnostikorako Circular Scan tresna kudeatzea eta hedatzea, bai eta eremu horietako hobekuntza-prozesuetan orientatzeko ere.
  - d. Gipuzkoako saltokietan Ekonomia Zirkularraren eta GJHen autodiagnostikorako 2022an garatutako Dendatu tresna kudeatzea eta hedatzea arlo horietako hobekuntza-prozesuetan orientatzeko, Trantsizio Ekologikoko Zuzendaritza Nagusiarekin eta San Sebastián Shops-ekin lankidetzan.
  - e. TEZNri laguntzea Ekonomia Zirkularraren arloan GKAFri agintzen dizkion mandatuetan.
3. Gipuzkoan ekonomia zirkularreko proiektu berritzaileak sortzea, bultzatzea eta bizkortzea; ekintza hauetan oinarritzen da nagusiki:
- a. Ekonomia zirkularrean berrikuntza eta ekintzaitza sustatzeko "Enpresen erronkak klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz" programaren VI. deialdia.
    - i. Laguntza teknikoa, erlazionala eta enpresa-mailakoa ematea "Enpresen erronkak klima-aldaketaren aurkako borrokan, ekonomia zirkularra sustatuz" programaren V. eta VI. deialdiak irabazitako enpresa bizkortuei.
  - b. Circular Lab garatzea Ekonomia Zirkularraren esparruan Gipuzkoan garatu daitezkeen negozio-aukeren erreferentziatzko gune gisa. Horretarako, ekintza hauek proposatzen dira:
    - i. Hondakinen/baliabideen **materioteka** bat sortzea, tokiko, lurraldeko eta nazioko erreferentziatzko gune gisa, Gipuzkoako lurraldeko enpresetan sortutako hondakinen eta baliabideen tipologia desberdinak sailkatzeko, informatzeko eta zabaltzeko. Halako "materialen liburutegia" edo biltegi propioa da, Naturklimak zuzenean kudeatua, eta gure lurraldeko enpresen hondakinen eta baliabideen ezagutza eskuratzeko modua ematen du, GK Recycling klusterra osatzen dutenetatik hasita. Lehendik dauden materialen dibulgazioa eta zabalkundea egiteko gunea, konponbide berritzaileak sortzeko; lehendik dauden materialentzako erabilera berriak identifikatzeko; ikerketa, prototipatzea eta material berrien sorkuntza sustatzeko hondakinak lehengai bihurtuz; industria-sinbiosia bultzatzeko; edo produktuen lehiakortasuna eta

jasangarritasuna      sustatzeko,      berrikuntza      eta      ekonomia  
zirkularreranzko      trantsizioa      bultzatuz.

- ii. Circular Lab hornitzea FabLab osagarri gisa, materiotekarekin harremanetan eta ekipamendu espezializatuarekin (hardwarea eta softwarea), ekonomia zirkularreko berrikuntzarako prototipatzea probatzeko, Gipuzkoako enpresetara bideratuta.

### RENEWABLE ENERGY HUB

1. GFA-TEZNren Gipuzkoako 2050erako Energia Jasangarritasunaren Estrategia eta Gipuzkoa KLIMA 2050 babestea. Adierazleak berrikusteko jarduketetan oinarritzen da, bai eta NKren jarduketan exekuzioan ere, estrategia horietan jasota.
2. Renewable Energy HUBen jarduerak garatzea: Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren kudeaketa-gomendioetan oinarrituta eta Fundazioaren plan estrategikotik abiatuta, ekintza hauen bidez:
  - a. TEZNri lagunduz ekoizpen-sektoreen deskarbonizaziorako bere ibilbide-orria hedatzen.
  - b. Eraldaketa Komunitarioko Bulegoa babestuz herritarrentzako eta enpresentzako energia-trantsizioaren arloko zabalkunde, laguntza eta aholkularitzarako. IZNk koordinatuta, Naturklima Gipuzkoako klima-aldaketaren fundazioarekin lankidetzan. Energia-trantsizioa ongizatea da, eta Naturklimak trantsizioaren bide horretan lagunduko du, honako hauen bidez:
    - i. Herritarrei eta enpresei zabalkundea, prestakuntza, laguntza eta aholkularitza eskaintzea.
    - ii. Etengabeko laguntza eta monitorizazioa energia-komunitateek nola funtzionatuko duten ikusteko, lurraldean arlo horretan egiten diren ekintza horien guztien gardentasuna eta trazabilitatea bermatzen laguntzeko.

### **3. ILDO ESTRATEGIKOA: EZAGUTZA SORTZEA ETA TRANSFERITZEA, TRANTSIZIO EKOLOGIKOA BIZKORTZEKO.**

1. Klima-aldaketaren arloko ezagutza teknikoaren zabalkundea egitea. Klima Aldaketaren Behatokiaren jarduerari buruzko zabalkunde- eta sustapen-ekintza guztietan oinarritzen da. Aipagarriena izango da Gipuzkoako klima-aldaketaren gaineko inpaktuari eta kalteberatasunari buruzko urteko V. txostenaren aurkezpen-ekitaldia.
2. Ekonomia zirkularraren arloko ezagutza teknikoaren zabalkundea egitea: Circular Recycling HUBen jarduerari buruzko zabalkunde- eta sustapen-ekintza guztietan oinarritzen da (esate baterako, Gipuzkoako Merkataritza Ganberarekin Gipuzkoako ETEetan Ekonomia Zirkularraren egoeraren azterketaren zabalkundea), baina baita ekonomia zirkularreko prestakuntzari lotutako ekintzetan ere, hala nola:

- a. UPV/EHUko Enpresen Administrazioiko Ekonomia Zirkularren Gelarekin lankidetzan aritzea (GFaren Jasangarritasun Departamentuarekin duten hitzarmenaren esparruan) GK Recycling-eko enpresetan GJHak eta jasangarritasun-estrategiak inplementatzeko eta ikasleak arlo horietan praktikoki prestatzeko.
  - b. Gipuzkoako ETEetan ekonomia zirkularra inplementatzeko gida praktikoa garatzea.
  - c. Gipuzkoako enpresari/industriari eta ekosistema ekintzaileari lotutako ekonomia zirkularri eta ekoberrikuntzari buruzko prestakuntza-plataforma sortzea eta garatzea, enpresek talentu espezializatua kaptatzeko atari bat bertan gehituz.
3. Herritarrak eta ikasleak klima-aldaketaren arloan prestatzea eta sentsibilizatzea.

#### KLIMA ALDAKETARI BURUZKO IKASGELA

- Klima-aldaketari eta GJHei buruzko sentsibilizazio- eta prestakuntza-tailerrak Gipuzkoako ikastetxeetan: tailerrak egingo ditugu Ingurumenaren Mundu Egunean, “Generación Z & Climate Change” programa edo GJHei buruzko tailerrak, besteak beste.
- KlimaBai! 2025 lehiaketa
- Gipuzkoa Basket saskibaloit-taldearekiko lankidetzahitzarmenaren 2024-2025 ekintza-plana garatzea, ohitura jasangarriei eta klima-aldaketaren borrokari laguntzekoei buruz sentsibilizatzeko eta halakoak sustatzeko herritarrei eta ikasleei zuzendutako sentsibilizazio-kanpaina.

#### **4. ILDO ESTRATEGIKOA: NATURKLIMA FINKATZEA TRANTSIZIO EKOLOGIKOA BIZKORTZEKO TOKIKO, ESTATUKO ETA NAZIOARTEKO ERREFERENTZIAZKO FUNDAZIO KAUDIMENDUN, ERAGINKOR ETA EFIZIENTE GISA.**

1. Fundazioaren Komunikazio Planeko ekintzak zabaltzea, Naturklima Gipuzkoako klima-aldaketan erreferente gisa eta Ekonomia Berdearen (Ekonomia Zirkularra eta Trantsizio Energetikoa) motor gisa kokatzeko.
2. Abian diren Europako proiektuak gauzatzea.
  - a. LIFE URBANKLIMA2050
  - b. MIKROKLIMA (Kutxa Fundazioaren desafio ekosozialak): mikrohezeguneen sarea klima-krisiaren aurrean.
  - c. Pirinioetako LIFE-SIP PYRENEES4CLIMA klima-estrategia.



- d. INTERREG BLUE POINT itsas ingurunean ekonomia zirkularra bultzatzeko (ekonomia urdina), “Blue point” sare bat sortuz Kantauriko eta Atlantikoko portuetan.
  - e. HAZITEK NOWASTE: nekazaritzako elikagaien sektoreko hondakinak murriztea, bilgarrirratze-mota berriak eta trazabilitaterako etiketak.
  - f. POCTEFA AI4FLOOD
  - g. Beste batzuk:
    - i. Eragile interesdun gisa parte hartzea SCOREn (Smart control of the climate resilience in European coastal cities).
    - ii. CIRCULAR BIOCARBON proiektuan interesa duten Hirien Taldean eta International Advisory Board-en (IAB) parte hartzea.
    - iii. NEWFEED PRIMA proiektuaren International Advisory Board-en (IAB) parte hartzea.
    - iv. LIFE ECOFEED proiektuaren International Advisory Board-en (IAB) parte hartzea.
    - v. MODEL2BIO (Modelling tool for giving value to agri-food residual streams in biobased industries) proiektuaren International Advisory Board-en (IAB) parte hartzea.
    - vi. CIRCULAR BIOBASED proiektuaren batzordean parte hartzea.
3. Diru-sarrereren iturriak dibertsifikatzea: Karbono Funtsa sustatzean eta dohaintzak lortzean oinarritzen da nagusiki, espazioak alokatzean eta finantzaketa nazionalako eta nazioarteko proiektuetan lehiatzeko proposamen berriak garatzean, tokiko, nazioko eta nazioarteko eragileekin lankidetzan.

2023-2026 Plan Estrategikoa garatzean, Naturklimaren jarduerak eta proiektuek aurrera egingo dute, orain arte garatutako ekimen guztiei jarraipena emanez eta plan estrategikoan planteatutako ekintza berriak barne, baina ekintza, proiektu eta aliantza berriak ere txertatuz. Horiek guztiak, gainera, Naturklima Eraikinak horretarako eskaintzen duen ahalmen handiaren ondorio gisa aurkeztuko dira.

## 2024ko eta 2025ko aurrekontu- diferentzien txostena

**II. kapituluko gastuetarako**, 2024koaren aldean gehitzea aurreikusten da, estrategikotzat jotzen diren ekintza hauek direla eta:

1. ZIRKULAR BAT EKOSISTEMA ekimenaren barruan, baterien karakterizaziorako “*Naturklima Laborategia*” martxan jartzea eta garatzea. Jarduera honen helburua da lurraldean baterien ekosistema zirkular bat sortzea balio-kate osoan.
2. Praktika-komunitateak edo “*Climate Social Labs*” martxan jartzea. Klima-aldaketaren aurkako ekintzaren erronken eta ekintzara bideratutako lankidetzak-ikuspegi praktikoa batetik planteatzen diren aukeren inguruko ezagutza baten oinarriak ezartzea du helburu.

**VI. kapituluko gastuetarako**, 2025. urtean Gipuzkoako Karbonoaren Borondatezko Funtsari egindako dohaintzetatik datoz aldeak, eta horiek handitzea aurreikusten da.

## Informe diferencias presupuesto 2024 y 2025

Para los **gastos del Capítulo II**, se prevé aumentar con respecto a la ejecución de 2024 debido fundamentalmente a las siguientes acciones consideradas estratégicas:

1. La puesta en marcha y desarrollo del “*Laboratorio Naturklima*” para la caracterización de baterías en el marco de la iniciativa ZIRKULAR BAT EKOSISTEMA. Esta actuación está destinada a generar en el Territorio un ecosistema circular de baterías en toda la cadena de valor.
2. Puesta en marcha de comunidades de práctica o “*Climate Social Labs*”, cuyo objetivo es sentar las bases de un conocimiento en torno a los desafíos en la acción contra el cambio climático, así como de las oportunidades que se plantean desde un enfoque colaborativo práctico y orientado a la acción.

Para los **gastos del Capítulo VI** las diferencias vienen derivadas de las donaciones recibidas al Fondo Voluntario de Carbono de Gipuzkoa durante el año 2025, se prevé un aumento de las mismas.